



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abenduaren 12a

147. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00329. Galdera, Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00330. Galdera, Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00331. Galdera, Building and Architecture Institute-k irakatsi beharreko titulu berekiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00336. Galdera, Valle del Queiles BHIari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00337. Galdera, Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziari buruzko araudi orokorraren 103. artikuluari buruzkoa (A11 esparrua, Sarasate pasealekua). Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00338. Galdera, Bidean enpresari eginiko ordainketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00339. Galdera, Bidean enpresaren jarduera abiaraztean izandako gorabeheri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00340. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Erriberako pazientei neuroestimulazioak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00341. Galdera, Belateko tuneletako obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00342. Galdera, BSHren enpresa hornitzailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00343. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00344. Galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokan 2023an azaleratu diren zorren egiazko diru-bilketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00345. Galdera, gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00346. Galdera, Nasuvinsaren Alokairu-poltsa programari atxikitako etxebizitzaren errekurrentzia-indizeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-25/PES-00347. Galdera, Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00349. Galdera, Nafarroako sare elektrikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00350. Galdera, Lanbide Heziketa Dualari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00351. Galdera, Nafarroako Turismoaren Agenda Ofizialean Corellako Ardo Azoka ez agertzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00352. Galdera, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00353. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIaren hezkuntza- eskaintza handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00354. Galdera, zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonen laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00355. Galdera, Laneratzeko Plan Estrategikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00356. Galdera, Ultzama ibaian dozenaka amurru hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00357. Galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari emandako dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00329. Galdera, Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00329); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zein dira Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialak euskaraz eta gaztelaniaz?

Izen ofiziala Nafarroako Foru Komunitatea da, eta gaztelaniaz Comunidad Foral de Navarra.

Zein arautan jasotzen dira izendapen horiek?

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 1. artikuluan.

Zer administrazio-izapide egin dira izen horiek legez aitortzeko?

Bat ere ez.

Zein administrazio-prozedurari jarraitu behar dio Administrazioak erkidego baten izen ofiziala ezartzeko?

Erkidego baten izendapena, bere nortasun historikoari hobekien egokitzen zaiona, autonomia-estatutuan ezarri behar da (Konstituzioaren 147.2 artikulua). Beraz, erkidego baten izena ezartzeko edo aldatzeko, haren autonomia-estatutua erreformatzeko ezarritako prozedura erabili behar da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria:
Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00330. Galdera, Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Building and Architecture Institute Programako ikasleentzako bekei buruz (PES-11-25/00330). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

BAI titulu berekiari buruzko informazio guztia herritarren ikusgai dago BAI Institutuaren web-orriaren bitartez: (<https://bai-institute.com/>).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzun osagarria

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin zuen Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruz (PES-11-25/00330). Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak, galdera horren errekerimenduari dagokionez, honako hau adierazi du:

BAI fundazioak (foru fundazioa da) kudeatzen ditu bekak. Ikasleei bekak eman nahi dizkieten entitate kolaboratzaileek eta enpresek jarriko dute beken dirua. Gaur egun, BAI beka horiek kudeatzen ari da. Gobernuak ezin du jakin zer irismen izaten ahal duten.

Bekei dagokienez, BAIren webgunearen arabera, «beken deialdiak BAI institutuaren web-orri ofizialaren bidez aditzera emanen dira». Zehazki, esteka honen bidez eman zen jakitera:

<https://bai-institute.com/noticias/el-instituto-bai-lanza-una-serie-de-becas-para-el-primer-ano-del-programa-bai>

Ikusten ahal denez, informazio gehiago eskatzeko helbide elektronikoa bat dago, BAI fundazioaren beraren (beken arduradunaren) helbide elektronikoa.

Nolanahi ere, webgune honetan dago informazio guztia: https://bai-institute.com/formacion#programa_bai.

Irudi hauetan ikusten ahal denez:

PROCESO DE MATRICULACIÓN Y BECAS

BECAS

La matriculación en el Programa de Posgrado del Instituto BAI se canalizará, fundamentalmente, mediante becas otorgadas por las entidades colaboradoras del Instituto, así como por las administraciones regionales. Las convocatorias de becas se harán públicas a través de la página oficial del Instituto BAI (bai-institute.com).

Desde el 15 de septiembre de 2025, el Instituto BAI ofrece una serie de becas para el alumnado del Programa BAI, que cubre la totalidad de la matrícula del primer año de posgrado.

Para más información acerca de la beca y para solicitarla, escribir a: programabai@bai-institute.es

CALENDARIO Y LOCALIZACIÓN

El programa se desarrollará en cuatro cuatrimestres, a lo largo de dos cursos académicos completos y consecutivos. Las clases se impartirán en el campus BAI de Pamplona (Navarra, España). El primer año corresponderá al título de 'Especialista en Fundamentos del Diseño e Innovación de la construcción'; el segundo, al título de 'Especialista en Diseño Avanzado e Industrialización de la construcción'. Una vez realizado el TFM, para el que se podrá dar, en su caso, una prórroga de seis meses una vez concluidas las clases, se obtendrá el título de posgrado PROGRAMA BAI.

MATRÍCULA

El coste de la matrícula completa para PROGRAMA BAI 2025 es de 18.000 euros por curso, que deberá ser abonado según el calendario establecido al respecto. Esta cantidad incluye la totalidad de los gastos de desplazamiento de las actividades docentes, entre ellas el viaje de estudios. Los gastos personales no están incluidos en ningún caso.

Se realizará un abono de 1.000 euros como reserva de plaza, no reembolsable en ningún caso, que deberá ser efectivo en el plazo de 7 días naturales después de que el estudiante haya recibido la carta de admisión.

El coste de la matrícula puede fragmentarse en cuatro plazos (25 % del importe total, cada uno de ellos), que se abonarán al comienzo de cada uno de los cuatro cuatrimestres de que consta la doble titulación.

PERFIL DEL ALUMNADO

El posgrado está orientado a quienes busquen una formación de excelencia en el campo del diseño y construcción aplicados a las nuevas tecnologías en el campo de la innovación y la industrialización de la arquitectura. Se orienta, por tanto, a un público amplio de técnicos/as, que abarca desde graduados/as en arquitectura e ingenierías hasta profesionales titulados/as del mundo de la construcción con aspiraciones a una especialización de excelencia.

SELECCIÓN Y ADMISIÓN

Los aspirantes deberán estar en posesión de un título universitario oficial español, de un título del EEES o de un título conforme a sistemas educativos ajenos al Espacio Europeo de Educación Superior, sin necesidad de la homologación de sus títulos y una vez comprobado que los mismos acreditan un nivel de formación y competencias equivalentes a los correspondientes títulos universitarios españoles, y que facultan en el país expedidor del título para el acceso a enseñanzas de posgrado. Esta titulación debe acreditarse al inicio de los estudios.

1) Una vez presentada la instancia de admisión, el proceso de selección comenzará con la solicitud a los candidatos/as de la siguiente documentación:

- CV del candidato/a
- Carta de motivación
- Cartas de referencia

2) En una segunda instancia, la Comisión Académica de PROGRAMA BAI estudiará los méritos de las candidaturas para seleccionar a quienes reúnan el perfil más adecuado. Se valorará sobre todo la excelencia académica, así como el interés e inquietud intelectual demostrados por los candidatos/as. Si lo estima oportuno, la Comisión Académica les podrá convocar a una entrevista personal, tanto presencialmente como online. En función de lo anterior, la Comisión Académica elaborará la LISTA PROVISIONAL DE ADMITIDOS/AS.

3) Una vez admitidos provisionalmente en el MBAI, los candidatos/as deberán entregar, dentro de los plazos establecidos para ello, la siguiente documentación:

Candidatos/as con un Título Universitario emitido en España:

- Fotocopia del Título Universitario
- Fotocopia del expediente académico con las calificaciones del Título Universitario

Candidatos/as con un Título Universitario del extranjero y emitido en un país de la EU:

- Fotocopia del Título Universitario
- Fotocopia del Expediente Académico con las calificaciones del Título Universitario

Los títulos, certificados y expediente académico deben ser traducidos a español

Candidatos con un Título Universitario del extranjero y no emitido en un país de la EU:

- Fotocopia del Título Universitario con la Apostilla de los acuerdos de la Haya o con copia compulsada de la Embajada de España en el país de origen (todos los sellos deben ser originales)
- Fotocopia del Expediente Académico con las calificaciones del Título Universitario con la apostilla de los acuerdos de la Haya o con copia compulsada de la Embajada de España en el país de origen (todos los sellos deben ser originales)

Los títulos, certificados y expedientes académicos deben ser traducidos a español.

4) Una vez recibida esta información y cotejada para comprobar su autenticidad, la Comisión Académica publicará la LISTA DEFINITIVA DE ADMITIDOS/AS, que no será firme _____

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa
Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00331. Galdera, Building and Architecture Institute-k irakatsi beharreko titulu berekiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Building and Architecture Institute-k irakatsi beharreko titulu berekiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu propioari buruz (PES-11-25/00331). Hona hemen Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

BAI titulu berekiari buruzko informazio guztia herritarren ikusgai dago BAI Institutuaren web-orriaren bitartez: (<https://bai-institute.com/>).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzun osagarria

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin zuen Building and Architecture Institutek emanen duen berezko tituluari buruz (PES-11-25/00331). Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak, galdera horren errekerimenduari dagokionez, honako hau adierazi du:

Momentuz, webgunean agertzen denaren arabera, matrikulatzeko epea zabalik dago. Horrenbestez, ez dago jakiterik zenbat pertsona matrikulatu diren graduondokoa.

Webguneko informazioaren pantaila-irudia atxiki dut hemen:

CURSO 2025-2026. CALENDARIO ACADÉMICO

Matrícula abierta para el curso 2025-26. Para más información: programabai@bai-institute.es

Nolanahi ere, BAI fundaziora eramaten duen esteka bat ageri da ere; izan ere, haiei dagokie matrikulatzeko prozesua.

Eskolak hasteko egunari dagokionez, eskura dagoen informazioaren arabera, gutxienez lehen urtean BAI graduondokoa Leiren emanen da. Horren berri ematen duen webgunearen pantaila-irudia atxiki dut (<https://bai-institute.com/articulos/el-primer-ano-del-posgrado-bai-se-impartira-en-el-monasterio-de-leyre>).

Aurkeztuko diren moduluei dagokienez, webgunearen arabera, «graduondokoa lau lauhilekotan emanen da (bi ikasturte oso), lau prestakuntza-modulutan eta zeharkako laborategi batean banatuta».

Hau da, webgunean adierazten denez, lehen ikasturtean lehen bi moduluak emanen dira.

Gainera, informazio hori guztia deskripzio-memorian azalduta dago (Parlamentuari ere igorri zitzaion). Webgunean deskargatzen ahal da.

Bestalde, Nafarroak zentroari emandako finantzaketa pabiloiak birgaitu eta egokitzeko da, bai eta funtzionaltasunari laguntzeko ere, zehazki, 300.000 euro (urtean), haren kanpo-proiektiorako diren jardurekin lotutako gastuetarako, arlo hauetan:

- prestakuntza
- ikerketa eta transferentzia teknologikoa
- proiektu pilotuak garatzea

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00336. Galdera, Valle del Queiles BHIari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak Valle del Queiles BHIari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 11-25-PES 00336 idatzizko galdera egin zuen. Hona Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Hezkuntza Departamentua udalek eskaini dituzten lurzati hauek baloratzen ari da:

1. Ablitas: 1. poligonoko 304., 305., 306., 308., 310. eta 422. lurzatiak.

2. Monteagudo: 1. poligonoko 777., 778., 779., 816., 818. eta 1002. lurzatiak.

3. Cascante: 6. poligonoko 505. eta 827. lurzatiak.

4. Murchante: 2. poligonoko 339. eta 734. lurzatiak.

Joan den urriaren 9an, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuko teknikariek bertan analizatu zituzten proposatutako lurzati guztiak, bai eta formalki aurkeztu ez ziren beste aukera batzuk ere.

Aurreikusten denez, urtea amaitu baino lehen, Departamentuak udalei jakinaraziko die lurzati guztien balorazioaren txostena, hartara lurzatiaren jabetza Nafarroako Gobernuari kargarik gabe lagatzeko prozedura hasteko.

Lurzatia laga ondotik, Hezkuntza Departamentuak exekuzio-proiektua lizitatuko du. Aipatu proiektua idatzi ondotik, Departamentuak eraikitzeko obrak lizitatuko ditu. Lurzatiaren lagapen efektiboak baldintzatuko ditu epeak.

Hezkuntza Departamentuak ez du lurzatiaren kokalekuari buruzko txostenik egin, orain dela gutxi bisitatu baita.

Lurzatia aukeratzeko zenbait irizpide hartuko dira kontuan. Hauek, besteak beste: kokalekua, guztizko dimentsioa, forma-koefizientea, sarbideak, orografia eta lurzatiaren hirigintza-baldintzatzaileak.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00337. Galdera, Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziari buruzko araudi orokorraren 103. artikuluari buruzkoa (A11 esparrua, Sarasate pasealekua)

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziari buruzko araudi orokorraren 103. artikuluari buruzkoa (A11 esparrua, Sarasate pasealekua), 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 11-25/PES-00337 galdera egin du, idatziz, Sarasate pasealekuko eskultura katalogatuei eta Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziko 103. artikuluari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Egindako lehenengo galderari dagokionez, Vianako Printzea Erakundeak badaki Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziko 103. artikulua (A11 esparrua, Sarasate pasealekua) existitzen dela. Eta haren txostenak Udalari dagokion Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziaren gainerako hirigintza-araudia betetzeari kalterik egin gabe egin ziren, hirigintza-araudi orokorraren 103. artikulua adierazten duena barne.

Bigarren eta hirugarren galderari dagokionez, Vianako Printzea Erakundearen Ondare Historikoren Zerbitzuak udal-teknikari batek idatzitako Sarasate pasealekuko sei estatuak lekualdatzeko proiektuari buruzko txostena egin zuen, bere eskumenen esparruan eta Iruñeko Udalak eskatuta, Alde Zaharreko Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziaren Katalogoak sei estatueterako, eraikuntzari lotu gabeko elementu gisa, zehazten

duen babesari dagokionez, bai eta lekualdaketa Taconera parkera egiteko proposamenari dagokionez ere, Taconera kultura-intereseko ondasun izendatutako Iruñeko harresien babes-ingurunearen parte baita.

Lekualdatzearen aldeko txostena egin zen, baina Udalari eskatu zitzaion estatuak zaharberritu eta lekualdatzeari buruzko hainbat gai bete zitzaizkien berriak tailla-euskarrien zimenduak egitean bete beharreko arkeologia-ondarea babesteko zenbait neurri bete zitzaizkien, eta, kokapen berriak –Taconera parkean– Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziaren katalogoak zehazten duen legebabes bera berma dezan estatueterako. Zehaztapen horretarako, Udalari ohartarazi zitzaion alde aurretik aldaketa bat izapidetu behar zuela Udalaren hirigintza-plangintzan, lekualdatu ahal izateko.

Halaber, Vianako Printzea Erakundeak, bere eskumenen esparruan, Sarasate pasealekua berrurbanizatzeko proiektuaren txostena egin du Vianako Printzea Erakundearen Kulturako zuzendari nagusiaren urriaren 8ko 246/2025 Ebazpenaren bidez.

Adierazi behar da estatuen lekualdatzea ez dela sartu bidalitako eta txostena egindako berrurbanizazio-proiektuaren xedean. Ebazpenak ebatzi du berrurbanizazio-proiektua baimentzea, proiektuari eta obrei buruzko zenbait zehaztapen betetzeari baldintzapean. Zehaztapen horiek Iruñeko Udalari helarazitako Ebazpenaren azalpen-zatian zehazten dira.

Eta egindako laugarren galderari dagokionez, gaur egun, ez da bidezkoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00338. Galdera, Bidean enpresari eginiko ordainketei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Bidean enpresari eginiko ordainketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du Osasun Departamentuak Bidean enpresari egindako ordainketen atzerapenari buruz, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00338). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Zergatik atzeratu dira Osasun Departamentuak Bidean enpresari egin beharreko ordainketak?

Ordainketen atzerapenak hainbat kausa izan ditu, hala nola hauek:

– Hilabete igarotakoan ordaintzen da.

– Ogasuneko kontu-hartzailatza delegatuak prozeduran jarritako kexak.

Zenbat diru egiten dute guztira?

Gaur egunean, hauek geratzen dira ordaintzeke:

– Desfibriladoreak erosteko dirulaguntza: 61.733 euro.

2023ko gastuak: 40.869 euro.

Konponduta al dago egoera hori? Nola?

Dirulaguntza izapidetzen ari da eta 2023ko gastuak Ogasuneko kontu-hartzailatza delegatuak jarritako kexa konpontzeko daude.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00339. Galdera, Bidean enpresaren jarduera abiaraztean izandako gorabeherei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Bidean enpresaren jarduera abiaraztean izandako gorabeherei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du Bidean zerbitzuak erregistratutako gorabeherei buruz, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00339). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Administrazio Kontseiluak 2025eko ekainaren 17an jakinarazi zuenez, gorabeherak gertatu ziren Bidean enpresaren jardueraren hasierako egunetan. Zer gorabehera izan ziren horiek?

Giza baliabideei dagokienez, gorabehera nagusia izan zen subrogatutako langileen txandak ez zirela eguneratzen; informazio hori, izan ere, irten-dako enpresek eman zuten.

Eragiketen arloan, programatutako zerbitzuari dagokionez bakarrik, honako hauek izan ziren gorabeherarik garrantzitsuenak:

- Akatsak BIDEAN zerbitzura transferitutako pazienteen datuetan, informazio okerra edo osatugabea baitzuten.

- Zerbitzua kudeatzeko plataforma aldatzea eta ibilgailu bakoitzean tabletak txertatzea. Horretarako, emandako tresna berrietara egokitu behar dute ezinbestean langileek.

- Bi erakunde pribatu desberdinetatik datozen langileak subrogatzea; horrek berekin dakar lan metodologia desberdinak integratzea eta sektore publikoaren arau propioetara egokitzea.

Bereziki, zeintzuk dira pazienteen datuetan aurkitutako gabeziak? Zeren ondorio izan zirela uste da?

Hona hemen detektatutako akatsetako zenbaitzuk: bilketa helbide batzuk okerrak ziren, lekualdatze baimenak falta ziren eta erregistro batzuk hildako pazienteei zegozkien. Gorabehera horiek enpresa pribatuetako batek egindako datu esportazio batetik zetozen. Arrazoi tekniko zehatza ezin izan da zehaztu, baina anomaliak esportazio horretara mugatu ziren.

Zer ondorio eragin zituzten zerbitzuaren jardueran izandako gabezia horiek?

Akats horien ondorioz, anbulantziak okerreko bilketa helbideetara bidali ziren eta, beraz, lekualdaketa batzuei ezin izan zitzaien garaiz eta behar bezala erantzun (are gehiago, zenbait kasutan ezinezkoa izan zen).

Zer egin da horiek konpontzeko?

- ERPko datu guztiak baliozkotzea, zerbitzuaren azken erabiltzaileekin zuzenean egiaztatuz, telefono bidez.

- Lekualdatzeko baimenen historikoa egiaztatzea, eta horretarako, informazioa prestazioen eta itunen datuekin alderatzea.

Konponduta al daude guztiak?

Deskribatutako enpresaren antzeko gorabehera operatiiboak konpondu egin dira. Alabaina, oinordetutako kudeaketa ohitura jakin batzuk zuzentzeko eta hobetzeko lanean jarraitzen dugu, egungo estandarretara erabat egokitze aldera.

Jasota utziko da emandako informazioaren konfidentzialtasuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua babesean parlamentariak dokumentazioa eskatzeko duen eskubi-dearen markoan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00340. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Erriberako pazientei neuroestimulatzailak emateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Erriberako pazientei neuroestimulatzailak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariori atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín andreak 11-25/PES-00340 galdera egin zuen. Hona Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroako Unibertsitate Ospitalean artatzen diren eta neuroestimulatzailak erabiltzeko agintzen zaien pazienteei zentro horretan ematen zaie gailua.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 16an

Osasun kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00341. Galdera, Belateko tuneletako obrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Belateko tuneletako obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

María Teresa Nosti Izquierdo atxiki gabeko parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin zuen Belateko tunelen obrei buruz (11-25/PES-00341). Hona Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1) Nafarroako Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoaren txostena ikusita, zeinean irregulartasunak direla-eta esleipena balio gabetzat jotzen baita, Gobernuak zer egingen du kontratazio publikoen prozedurak artezteko?

Nafarroako Gobernuak alegazioak aurkeztu dizkio Nafarroako Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren txostenari, Belateko tunela bikoizteko obrei buruz Departamentuaren idazkaritza tekniko nagusiak egindako txosten batean, non argudioak azalduta aurka egiten baitio esleipen-espeditentearen deuseztasun-deklarazioari. Gainera, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailatza Nagusiak ere aurka egin dio Nafarroako Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren deklarazioari, Lurralde Kohesiorako Departamentuarenaren ildo bereko alegazio batekin.

2) Gogoan hartu al da instantzia judizialak edo auditoria independenteak inplikatzeko aukera ondare-kalterik egon ote zen argitzeko?

Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2025eko ekainaren 12an egindako prentsurrekoan iragarri zuenez, Foru Gobernuak lan-ildo hirukoitza jarri du abian Unitate Zentral Operatiboaren (UCO) txostenarekin lotutako kontratazio publikoko prozesuak argitzeko eta esleipen-irizpide teknikoetan kanpo-injerentziarik izan ez dela ziurtatzeko. Horregatik,

Nafarroako Gobernuak Belateko tunela bikoizteko obren espedientea bai Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoari eta bai kanpo-auditoretza bati igorri zien. Kontuen Ganberak 2023ko Nafarroako Kontu Orokorretan analizatu zuen espedientea.

Ez da beharrezkotzat jo justiziara jotzea, ez baitago ondare-kalterik.

3) Nola berrmatuko da etorkizuneko esleipen-prozesuek gardentasunaren eta parte-hartze publikoaren irizpideak betetzea eta kontratazio-mahaiek modu presentzian edo deliberazio-mekanismo frogatuen bidez jardutea?

Kontratazio-mahaia kide anitzeko organoak dira eta modu presentzian edo telematikoa jarduten ahal dute.

Nafarroako kontratazio-prozesuetako gardentasuneko eta parte-hartze publikoko bermeak betetzen dira; izan ere, lizitazio- eta esleipen-prozesu guztiak publikoak dira Nafarroako Kontratazioaren Atarian (Kontratuen Foru Legeak arautzen du) eta Extra eta Plena plataformen bitartez izapidetzen dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00342. Galdera, BSHren enpresa hornitzaileei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak BSHren enpresa hornitzaileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du BSHren enpresa hornitzaileei buruz (11-25/PES-00342). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer bilera egin ditu BSH enpresaren hornitzaileekin, enpresa itxi-ko dela-eta?

Jarraian, BSHren enpresa hornitzaileekin egindako bileren zerrenda osoa zehazten da. Garrantzitsua da azpimarratzea, zerrendan ikus daitekeenez, itxiera iragarri aurretik eta horri buruzko edozein ezagutza izan aurretik, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak harreman arina izan duela enpresa hornitzaileekin, eta haien egoeraz interesatu dela, BSH enpresaren itxiera iragartzeaz harago. Zerrendan agertzen diren enpresa horiekin izandako bilerez gain, telefono bidezko harreman ugari ere izan dira.

Hona hemen egindako bileren eta bisiten zerrenda:

- Tasubinsa:
 - 23/02/07: Bisita La Morea industrialdean
 - 25/02/17: Bisita Bulego Nagusira Arazurin
- Knauf:
 - 25/03/06: Bisita Agoitzen
- Embega
 - 25/02/19: Bisita Villatuertan
 - 25/03/05: Teknologia elektronikoaren katedraren bilera
 - 21/05/28: Bilera LASEMErekin Embegan

- 22/12/12: Bilera Iñigo Ucinekin
- 21/05/28: ANEL – LASEME akordioa sinatzea
Embegan
- 22/12/12: Embegaren 50. urteurrena
- 22/04/27: Topaketa Expo GoMobilityn
- 21/09/14: Energia-komunitateak – ANEL
- 25/06/04: S4ko Zuzendaritza Batzordea
- Mecacontrol
- 23/02/17: Bilera Antonio Ullaterekin
- 23/03/29: Bilera Antonio Ullaterekin
- 22/04/27: Topaketa Expo GoMobilityn
- Neinsa
- 25/03/06: Bisita Agoitzen
- Manuel Piquer (CEN)
- 25/09/02: Bilera
- 25/05/07: Bilera

Beltzez nabarmendu dira BSH enpresaren itxieraren iragarpenaren ondoren izandako bilerak eta

bisitak. Bilera eta bisita horietan, nola ez, itxiera eta izan ditzakeen ondorioak jorratu dira, bai eta enpresa hornitzaileei buruzko beste gai batzuk ere.

Garrantzitsutzat jo da, halaber, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin egindako bilera aipatzea. Bilera horietan, BSH enpresaren egoera partekatu da Manuel Piquer jaunarekin. Era berean, nabarmentzekoa da harremanak izan direla Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Garbarekin.

Zer egoeratan geratzen dira BSHren enpresa hornitzaileak eta nola eragin die enpresa hori itxerak?

Bigarren galderari dagokionez, alde honek ez du datu nahikorik enpresen egoera eta jasandako eraginak kalifikatzeko, enpresek ez baitute horri buruzko informaziorik eman.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00343. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00343 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Iturramako, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan egindako pilotajearen ebaluazioaren txostenean, bi urtekoen gelak ezarri izanari buruzko asebetetze handia jasotzen zuen horretan, jasotako balorazioak argiak eta biribilak dira.

Hezkuntza Departamentuak oso positiboki baloratzen du ebaluatutako esperientzia eta, ikusita bi urtekoen gelak Haur Hezkuntzako lehen zikloko plazen eskaerari erantzuteko aukera bikai-

na direla, 2025/2026 ikasturtean finkatu egin da hiru ikastetxe horien eskaintza eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko honako eskaintza berri hauek ezarri dira Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan:

- Etxarri Aranazko San Donato ikastetxe publikoa.

- Burlatako Hilarión Eslava ikastetxe publikoa. Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00344. Galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokan 2023an azaleratu diren zorren egiazko diru-bilketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak iruzur fiskalaren aurkako borrokan 2023an azaleratu diren zorren egiazko diru-bilketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Adolfo Araiz Flamarique foru parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluekin bat, galdera bat egin zuen 2025eko irailaren 25ean —irteera-erregistroa: 202505522 (11-25/PES-00344)—. Galdera horretan, informazioa eskatzen zuen 2023ko Zerga Kontrolerako Plana aplikatzearen ondorioz azaleratutako kopuruari dagokionez. Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. 2023ko Zerga Kontrolaren emaitzetatik, azaleratutako 274 milioi euro horietatik, zeintzuk kobratu edo sartu dira egiaz Foru Ogasunean?

Ogasunak egiten dituen zerga-kontrolerako jarduketan ondorioz azaleratzen diren zerga-zorrak azaleratu ziren ekitalditik oso urrun dauden uneetan kobratzen ahal dira, arrazoi hauek direla eta: ordaintzeko muga-eguna aurreko aurrekontu-ekitaldi batekoa izatea, ordaintzetak geroagoko ekitaldietara geroratu izana, kobrantza premiamendu-bidean lortu izana geroagoko ekitaldi batean edo jatorrizko

zordenez bestelako hirugarrenen aurreko erantzukizunak deribatuzko espedientea izapidetu izana.

Inguruabar horiek direla eta, Nafarroako Foru Ogasunak kontabilitate-egitura konplexua du. Zor guztien erabateko kontrola ahalbidetzen du, baina ez du datuak metatuta ustiatzeko aukerarik ematen.

2025eko ekitaldian, iruzurraren kontrako borrokaren sortzapenen kobrantzei buruzko informazioa metatuta lortzeko aukera ematen duten arauak definitzen ari gara, eta laster itxiko ditugu arau horiek, eta prozesu informatiko batean sartu. Prozesu informatiko horrek modu automatizatuan itzuliko du sortzapen horien kobrantza-ehunekoa.

Nafarroako Foru Ogasunak aurreikusten duenez, 2025eko ekitaldiko iruzurraren kontrako borrokaren emaitzak kobrantza-ehunekoak adierazita eskainiko dira.

2. Zehazki, 2024ko ekainaren 7an jakinarazi ziren BEZaren eta erantzukizun zibilaren arloko bi jarduketari dagokienez (100 eta 50 milioi euro, hurrenez hurren), zer zenbateko kobratu da egiaz?

Erantzun orokorrik ezin dut eman, baina erantzuten ahal diot bi espediente jakini dagokienez kobratutako zenbatekoei buruzko galderari.

– BEZaren arloko jarduketa. Azaleratutako zenbatekoa 90.678.413,07 eurokoa zen. Erantzunaren egunean, 90.034.526,48 euro kobratuta daude eta gainerako 643.886,60 euroak transferentzia bidez jasotzeko zain gaude.

– Herri-ogasunaren aurkako delitu baten ondoriozko erantzukizun zibilaren arloko jarduketa. Azaleratutako zenbatekoa 51.231.065,55 eurokoa izan zen. Zenbatekoa ordaintzeko dago oso-osorik.

3. Bi jarduketa horiek direla-eta:

– Subjektu pasiboek errekurritu al zituzten?

- BEZaren arloko jarduketa. Ez zaio errekurtsorik paratu.

- Herri-ogasunaren aurkako delitu baten ondoriozko erantzukizun zibilaren arloko jarduketa. Errekurtsioa paratu zaio, eta oraindik ez da epai imorik egin.

– Errekurritu ala atzeratu egin ziren? Hala izan bazen, exijitu al zen abal edo bermerik aurkeztea?

Ez bata ez bestea ez ziren ez atzeratu ez zati-katu. Erantzukizun zibilaren arloko jarduketari errekurtsioa paratu zitzaion; ez zen abal edo bermerik eskatu; izan ere, zigor-arloko prozedura bat da eta zorra ezin da exijitu hura zehazten duen epaia irmoa ez bada.

– Gertakari horietako bat ere gertatu ez bada, zorra ordainarazpen-bidez kudeatzera igaro al da? Ordainarazpen-bidera igaro bazen, zenbat enbargo eta zer enbargo-mota egin dira eta zein izan da emaitza?

Espedienteetako ezein ez da premiatu. BEZaren arloko jarduketari dagokiona, kitatu delako; eta erantzukizun zibilaren arloko jarduketari dagokiona, errekurtsioa paratu zaiolako zigor-arloko epaitegie-tan eta epai irmoaren zain dagoelako.

– Egin al da erantzukizuna deribatzekeo jarduketarik?

Ez da erantzukizuna deribatzekeo jarduketarik egin bi espedienteetako ezeinetan. BEZaren arlo-

ko jarduketan, zorra kobratu delako. Erantzukizun zibilaren kasuan, zor irmoa ez dela alde batera utzita, adierazi behar da halako zorrak direla-eta ezin dela erantzukizunik deribatu.

Hala ere, erantzukizun zibila zehazten duen epaiak adierazten du ordainketaren erantzule solidario batzuk daudela.

– Aurrekotik ezerk ere ez badu emaitzarik ekarri, bi zor horiek zordun handien zerrendan sartuko al dira?

Bi jarduketa horiek ukitutako bi zergapekoak ez dira Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 105 bis artikuluan araututako zordunen zerrendan sartuko. BEZaren arloko jarduketari dagokiona, zorra kitatu delako. Delituaren ondoriozko erantzukizun zibilaren arloko jarduketari dagozkionak (ordaintzeko dago oraindik irmoa ez delako, berresten bada eta ez bada ordaintzen), ez dira sartuko, herri-ogasunaren aurkako delituaren ondoriozko erantzukizun zibila ez baita zerga-zortzat hartzen. Kontuan izan behar da herri-ogasunaren aurkako delituek publikotasun-araubide propioa dutela; Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege organikoaren 235 bis artikuluan ezarrita dago.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00345. Galdera, gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihana Gallo San Román andreak gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihana Gallo San Román andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruz (PES-11-25/00345). Hona Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Idatziz egindako galderaren lehen puntuari erantzutea NUPi dagokio; izan ere, Euskarazko

lkasketen Plan Gidaria haren eskumena da, eta, beraz, haiek dira plana betetzeari eta horretarako hartutako neurriei buruzko xehetasun gehiago eman dezaketenak.

Euskarazko bekentzako dirulaguntza berariazko koei dagokienez, Nafarroako Gobernutik euskarazko ikasketak ematea babesten dugu, NUPekin egindako finantzaketa-hitzarmenaren bidez, zehazki 4.2 puntuaren bidez: Euskarazko irakaskuntza-jardueretarako dirulaguntza. Jaso beharreko

dirulaguntza NUPen euskarazko irakaskuntza-jarduerari lotuta dago, baita euskaraz ematen diren kredituei ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00346. Galdera, Nasuvinsaren Alokairu-poltsa programari atxikitako etxebizitzaren errekurrentzia-indizeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nasuvinsaren Alokairu-poltsa programari atxikitako etxebizitzaren errekurrentzia-indizeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatzizko galdera egin du (11-25/PES-00346). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2006an Alokairu Poltsa abian jarri zenetik 2025-09-30era arte, Nasuvinsa sozietate publikoak Nafarroako Gobernuaren programa horri partikularrek lagatuko 1.427 etxebizitza kudeatu ditu guztira. Programa horren helburua da etxebizitza eskuragarrien eskaintza publikoa handitzea.

Hona hemen etxebizitzaren banakapena, kontratuen egoeraren arabera:

	ETXEBIZITZAK	%
Lehen kontratuaren ondoren berritu zuten etxebizitzak	699	% 77,1
Lehen kontratuaren ondoren berritu ez zuten	207	% 22,9
GUZTIRA	906	% 100
Lehen kontratua indarrean duten etxebizitzak	521	
KUDEATUTAKO ETXEBIZITZA	1.427	

Datu horiei esker, ondoriozta dezakegu lehen kontratua amaitu zitzaizen 906 etxebizitzetatik 699k alokairu-poltsari lagatuta egoten jarraitu zutela; hori % 77,1 da, hau da, 10 etxebizitzatik 8k. 699 etxebizitza horien jabeek programa horrekiko konfiantza berritu dute kontratu berriak sinatuz. Kontratu horien kopurua, hasierakoaren ondoren, batetik seira bitartekoa da.

Aitzitik, lehen kontratua amaitu ondoren, jabeek 207 etxebizitza berreskuratu zituzten, hau da, % 22,9.

Gaur egun, beste 521 etxebizitzak dute lehen kontratua indarrean, eta, beraz, une honetan ezin da erabaki jabeek lagapen-epa berritzea edo programa uztea erabakiko duten.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria:
Begoña Alfaro García

11-25/PES-00347. Galdera, Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-25/PES-00347 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Zertan da Etxebizitzaren Behatokia sortzeko prozesua?

Etxebizitzaren Behatokia sortzeko prozesua garapen teknikoko fasean dago gaur egun. Berrikuntza eta Ikuskapen Atala, Behatokiaren proiektua garatzeaz arduratzen dena, bi eremutan ari da lan egiten. Lehenik eta behin, barne-erabilerako "aginte-taula" aplikazioak Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak dituen aplikazio informatiko guztien datuen ustiapena berrikusteko eta finitzeke lanak egiten ari dira. Lan delikatua da; izan ere, datuen bolumena nahiko handia da, eta beharrezkoa da haiekin zorrotz jokatzeari.

Aldi berean, behatokia bera, lehen bertsio publiko batean, zer izanzen den definitzen ari gara. Bertsio hori webgune batek osatuko luke, eta

aipatutako aginte-taulatik ateratako datuak erakutsiko lituzke, bai eta etxebizitzaren arloko gai garrantzitsuei buruzko txosten propioak nahiz kanpokoak ere.

Gobernuak zer egutegi darabil gogoan behatokia egiaz abian jartzeko?

Aurreikuspenen arabera, lanak, lehen bertsio batean, urte honen amaieran amaituko dira, edo, beranduenez, datorren urtearen hasieran.

Zer giza baliabide eta baliabide material jarri nahi dira behatokiaren funtzionamendurako?

Berrikuntza eta Ikuskapen Atalak, gaur egun, atalburu bat eta legelari bat ditu, eta, gainera, Berrikuntza, Parte-Hartze, Ikuskapen eta Hedapen Zerbitzuko bi administrarien laguntza du. Atalak, gainera, erdi-mailako teknikarien bi plaza huts ditu, eta espero da horiek datozen asteetan betetzea.

Aurrekontuari dagokionez, datorren urterako aurreikusita dago 400.000 euroraino bideratu ahal izatea proiektu hau garatzeko.

Lehendik dauden beste behatoki edo erakunde batzuekiko zer koordinazio-mekanismo aurreikusten dira?

2026rako aurreikusitako 400.000 euroko aurrekontuaren zati batean, behatokiak datuen gobernantza sistema bat eraikitzeke lan bat sartzen da, sailen arteko lankidetzarako atal bat duena, batez ere Nafarroako Datuaren Bulegoarekin eta Nastatekin lankidetzan aritzeko. Azterlan horren barruan definituko dira beste behatoki edo erakunde batzuekin ezar daitezkeen harremanak. Hasiera batean, gure behatokiak Eurostat, MIVAU, Housing Europe, Provienda eta antzeko guneetatik datorren informazio garrantzitsua eskaini ahal izatea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

María Teresa Nosti Izquierdo atxiki gabeko parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin zuen (11-25/PES-00348). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Aipatu idatzizko galderan eta osoko bilkuran egindako ahozko galderan erantzun zen bezala, NOUn klimatizazioari dagokionez egin diren jarduketak azpiegiturek eta aurrekontuak ahalbidetu dituzten guztiak izan dira, 2026ko udara begira bezalaxe.

Laburbilduz, 2024an, zenbait jarduketa egin ziren NOUko klimatizazioan. Hona garrantzitsuenetako bat: ospitalizazio-guneetako paziente eta langileen erosotasuna eta bizigarritasuna hobetzeko klimatizazioa ezartzeko planarekin hastea. Hotza banatzeko hodi berriak instalatu ziren, Nafarroako Ospitalea zenaren H eta N pabiloietako solairu guztiak klimatizatu ahal izateko; H4 eta N4 solairuak klimatizatu ziren, bai gelak eta bai lan-lokalak, eta Etxeko Ospitalizazioko eremuko erabilera anitzeko gela eta sendagaiak biltegitratzeko gela, eta izpietako eta kontrolako

gela berriak (NOU-Bko 1. solairuan daude) ere bai; eta Vianako Printzea zentroaren teleaginte berriaren gelaren klimatizazioa berritu zen.

2025 honetan, klimatizazioa ezartzeko plana gauzatzen jarraitzen dugu Psikiatriako haur eta gazteen eremuan, H3 eta H2 solairuetan, bai geletan eta bai lan-lokaletan, eta Nafarroako Ospitalea zenaren bloke kirurgikoan (hurrengo astean hasiko da funtzionatzen eta behar bezala emanen dugu horren berri).

Asmoa da planarekin jarraitzea eta gainerako ospitalizazio-eremuetan eta deserosotasun termikoko eremu sentikorretan klimatizazioa ezartzen jarraitzea. 2026rako, Ereku Orokorreko 6. solairuaren klimatizazioa jorraituko dugu eta, gero, Iparra 3rekin eta Iparra 2rekin jarraituko dugu. Aldi berean, datozen urteetan E pabiloia eta Vianako Printzea zentroko kontsulta-zentroa jorraitu ahal izateko hotz-uztaien lizitaziorako izapideak hasi dira.

Aurreikusitako obra posibleak alde batera utzita, hurrengo udara begira, NOUk neurriak hartuko ditu berriro bero-boladetan egoera arindu ahal izateko, batik batik pazienteak aire girotua duten geletan paratuta. Airerik edukitzerik ez dagoen kasuetan, gelak indibidualizatuko dira, betiere presio asistentziala nolakoa den.

Gainera, H2 eta H3 klimatizatuta egonen dira (orain arte ez zegoen girotuta); horri esker, hegal gehiago egonen dira klimatizatuta, ospitalizatuta dauden pazienteak banatu ahal izateko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00349. Galdera, Nafarroako sare elektrikoari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroako sare elektrikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

María Teresa Nosti Izquierdo atxiki gabeko parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin zuen Nafarroako sare elektrikoari buruz (11-25/PES-00349). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Lehenengoa. Aurrekariak:

Banaketa-sareen kudeatzaileek euren sareko korapilo bakoitzerako sarbide-kapazitateak jakinarazi beharko lituzkete, bi hauetan zehaztutakoa betez: 1183/2020 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko sareetarako sarbideari eta konexioari buruzkoa, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren 1/2024 Zirkularra, irailaren 27koa, energia elektrikoa eskatzeko instalazioen garraio- eta banaketa-sareetarako sarbideari eta konexioari buruzkoa.

Eskari-kapazitateen kalkulua eta argitalpena egiteko, honetan ezarritakoa hartuko da oinarri: Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren 2025eko ekainaren 8ko Ebazpena, eskaria elektrizitatea banatzeko sareetara sartzeko kapazitate irmoa zehazteko xehetasun-zehaztapenak ezartzen dituena, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren 2025eko apirilaren 30eko Ebazpenean araututako formatuarekin bat etorritik (ebazpen horren bidez, banaketa-sarearen kudeatzaileek energia elektrikoa eskatzen eta sortzen duten instalazioetan sartzeko kapazitateak argitaratzeko formatuak ezartzen dira).

Hori horrela, 2025eko irailaren 9an egin zuten lehen argitalpena banaketa-sareen kudeatzaileek (enpresa banatzaileek). Informazio hori hilean behin argitaratu beharko da.

Planteatutako galderei erantzun baino lehen, jakinarazi behar da, hain zuzen ere, banaketa-sareko korapilo gehienak gaur egun ez direla gai eskari berrien eskaerei erantzuteko.

Nabarmendu behar da okupatutako kapazitatea banakaturik gero emaitza dela Nafarroako sarean dauden korapiloen "okupazioaren" % 45 "esku-bideei" edo "erreserbei" dagokiela. Hau da, % 55 benetako eskariari dagokio eta gainerako % 45a gauzatu gabeko proiektuei dagokie (horietako batzuk abiaraziko dira eta beste batzuk ez). Alegia, asetasun "teoriko" edo "administratibo" bat dago.

Nabarmenezkoa da, orobat, une honetan ez dagoela oztoporik deskarbonizatze / elektrifikazio industrialeko ezein proiektu gauzatzeko. Nolanahi ere, egia da neurriak hartu behar direla hori ez dadin gertatu epe ertain/luzean.

Bigarrena: Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartuko du foru-erkidegoko azpiestazio elektrikoaren egungo saturazioa (% 94) arintzeko?

Gai honen eskumena Estatuak du; hain zuzen ere, behin baino gehiagotan kritikatu dut plangintza-prozeduran azken erabakia Espainiako Gobernuak izatea eta, desadostasunik badago, Nafarroako Gobernuak daukan aukera edo errekurtsio bakarra alegazioak aurkeztea izatea (alegazioak prestatzen ari gara eta epea abenduaren 16a da).

Aurrekoa ikusita, Administrazio honek uste du bestelako neurriak hartu behar direla bai garraio-sarean eta bai banaketa-sarean. Neurri guztiak ez dira instalazio berriak exekutatzeko; aitzitik, izaten ahal dira arautzeko neurriak.

Alde batetik, abiarazi behar dira 2021-2026 aldiko plangintzan jada aurreikusitako instalazioak. Hona, funtsean, egiteko dauden jarduketak:

– Muruarte-Itsaso-Castejongo 400 kV. Nafarroaren eta EAEn arteko 400 kV-eko sarea sareztatzea. Instalazioak aldeko ingurumen-inpaktuaren adierazpena du. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena egin behar ditu, baina oraindik ez ditu egin.

– 220 kV-eko linea eta Estellerriko 220 kV-eko azpiestazioa. Instalazio hori hasi dira jada eraikitzen eta, aurreikusten denez, 2026an abiaraziko da.

– La Serna-Magallongo 400 kV-eko linea. Jarduketak aldeko ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortu berri du. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena egin behar ditu, baina oraindik ez ditu egin.

Aldi berean, instalazio berriak sartu behar dira 2030erako plangintzan.

Garraio-sarea garatzeko proposamenak (plangintza-zirriborroa), 2025eko urrian argitaratu zenak, hauek aurreikusten ditu, besteak beste:

– Hirugarren transformadorea Zangozako 220 kV-eko azpiestazioan. Jarduketa hau sartu da oraingo kontsumitzaile industrial baten deskarbonizazio-/elektrifikazio-beharrei erantzuteko.

Administrazio honen aburuz, elektrizitate-eskariari dagokionez, aurreko jarduketaz gain, hauek barne hartu beharko lituzke 2030erako plangintzak:

– Bigarren transformadorea Estellerriko 220 kV-eko azpiestazioan. Jarduketa honi esker, Cordovillako 220/66 kV-eko azpiestazioa eta Tafallako 220/66 kV-eko azpiestazioa “deskargatzen” ahalko dira.

– Tafalla-Zangozako 220 kV-eko itxitura berria. Jarduketa horri esker, 200 kV-eko sarea sartzten ahalko da inguruan.

– La Sernako 400 kV-eko transformazio-azpiestazio elektrikoa handitzea. Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Orkoiengo 220 kV-eko transformazio-azpiestazio elektrikoa handitzea. Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

Azken biak ez dira kontuan hartu. Garraio-sarearen plangintza elektrikoa egin eta onestea prozesu administratibo konplexu eta luzeegia da, eta azken erabakia Espainiako Gobernuari dago.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera, Estatuko Administrazio Orokorra egiten du plangintza elektrikoa, Autonomia Erkidegoekin eta Ceuta eta Melilla hiriekin batera; Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin beharko du eta entzunaldi-izapidea ere egin beharko da. Gobernuak onartu aurretik, Diputatuen Kongresuan onetsi beharko da, bertako Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, eta sei urteko aldietarako egin beharko da.

Legearen artikulua horrek berak garapen-planen alderdi puntualak aldatzeko aukera aurreikusten du, baina prozedura horiek ere konplexuak dira.

Arintzeko neurriak zehaztu behar dira garraio-zerbitzua abiarazteko, edo, behintzat, azpiegitura batzuk (adibidez, oraingo azpiestazioak handitzea). Hori behin baino gehiagotan adierazi zaio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, baita idatziz ere, 2024ko martxoan, zehazki, abenduaren 21eko TED/1375/2023 Aginduak ezartzen zuen prozesu arautuaren esparruan —Agindu horren bidez, energia elektrikoaren garraio-sarea garatzeko proposamenak egiteko prozedura hasi zen, 2030erako—.

Energia elektrikoa banatzeko jarduera arautua eta ordaindua da, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak ezarritakoaren arabera.

Enpresa banatzaileek instalazio berrietan inbertitzea sustatzeko, beharrezkoa da energia elektrikoa banatzeko jardueraren aldeko ordainsari-esparru bat ezartzea, bai eta sarean inbertitzeko gehieneko mugak handitzea ere.

Banaketa-jardueraren ordainsari-araubidea finkatzen duen araudi guztia, bai eta enpresa banatzaileen inbertsio-planari dagokiena ere, Estatuko Administrazio Orokorren mende dago (hargatik eragotzi gabe Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari dagozkion eskumenak).

Enpresa banatzaileen inbertsio-planetan sartu eta onartu ondotik, plan horietan aurreikusten diren jarduketak ahalik eta lasterren exekutatu behar dira.

Hori horrela, exekutatzeke dauden instalazioen artean, nabarmentzekoak dira 66 kV-eko lineak, Estellerriko 220 kV-eko azpiestazio berritik abiatuko direnak (220/66 kV-eko transformadorearekin). Espero da jarduketa berriek Cordovillako 220/66 kV-eko eta Tafallako 220/66 kV-eko azpiestazioak “deskargatzea”.

Proiektu horiek (hiru) aldeko ingurumen-inpaktuaren adierazpena dute. Lurzoru urbanizaezineko jardueren eta erabileren baimena lortzeko zain gaude, ondotik aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena emateko.

Administrazio honen aburuz, beharrezkoa da gauzatuko ez diren proiektuekin edo “espekulatzeko” asmoa dutenekin sarea asetzea eragotziko duten neurri batzuk ezartzea.

Sarera sartzeko eta konektatzeko prozesuak arautzea ere Estatuko Administrazio Orokorren esku dago. Hala ere, Administrazio honen ustez,

neurriak behar dira enpresa banatzaileei eskaerak lehenesteko moduren bat ahalbidetzeko (une honetan, sarbide- eta konexio-kapazitatea aurkezpen-ordenaren arabera ematen da, eta ez da kontuan hartzen kontsumitzaile mota —industrialia edo ez-industrialia—). Era berean, kapazitatearen “erreserbarako” pizgarriak kentzeko neurriak ere planteatzen ahal dira (oinarri duen benetako inbertsio-proiekturik gabe), hala nola berme ekonomikoak gordailutzea sarerako sarbidea eta konexioa eskatu aurretik.

Hirugarrena: Sare elektrikoko inbertsioek edo hobekuntzek zer epetan uste da ekarriko dutela Nafarroako industria-hazkundeari eusteko ahalmen handiagoa?

Aurreko erantzunean jada adierazten da neurri batzuk epe motzean zehazten ahal direla eta zehaztu behar direla, eta beste batzuk ezartzeko epea luzeagoa da.

Laugarrena: Nola koordinatzen da Nafarroako Gobernua Estatuko Gobernuarekin 2030erako Elektrizitatearen Estatu Planak gure lurraldean identifikatutako beharrei erantzunen diela ziurtatzeko?

2030erako plangintzari dagokionez, Nafarroako Gobernua Estatuko Gobernuarekin koordinatzen da hainbat modutara.

2024ko martxoan helarazi ziren ofizialki Nafarroako garraio-sarearen beharrak abenduaren 21eko TED/1375/2023 Aginduak ezartzen zuen prozesu

arautuari jarraituz —Agindu horren bidez, energia elektrikoaren garraio-sarea garatzeko proposamenak egiteko prozedura hasi zen, 2030erako—.

Gainera, alegazioak aurkeztuko zaizkio 2025eko urriari argitaratuko zirriborroari, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren iragarkian zehaztutako prozedurari jarraituz —Agindu horren bidez, energia elektrikoaren garraio-sarearen 2030erako plangintza-proposamenaren eta haren ingurumen-azterketa estrategikoaren entzunaldi-izapidea egiten da, eta eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiten zaie, bai funtsezko izapidearen ondorioetarako eta bai ingurumen-izapidearen ondorioetarako (236. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2025eko urriaren 1ekoa)—.

Gainera, behar horiek ahoz jakinarazten dira aukera dagoen foroetan, adibidez, 2025eko irailaren 18an Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioan egindako bileran. Berriro diot prozedura aldebakarrekoa dela, eta eskumena eta azken erabakia Estatuko Administrazio Orokorrarenak direla.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00350. Galdera, Lanbide Heziketa Dualari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nostilzquierdo andreak Lanbide Heziketa Dualari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25/PES-00350 galdera idatzia egin du. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

Enpresako edo parekatutako organismoko prestakuntza bi arau hauetan araututa dago: 3/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketa antolatu eta integraztekoa, eta 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketaren Sistemaren antolamendua garatzen duena. Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketa Duala bi arau horietan zehaztutakoaren arabera ezartzen

ari da; beraz, bermatuta daude prestakuntzaren kalitatea eta LH Dualeko ikasleentzako lan-baldintza egokiak.

Hezkuntza Departamentua, Nafarroako Foru Komunitateko sare ekonomikoaren elkarte esanguratsuenekin batera, LH Dualaren ezarpenean laguntzen ari da dibulgazio-, informazio- eta prestakuntza-kanpainekin, hartara enpresek eta parekatutako organismoek ere parte har dezaten LH Dualeko ikasleen prestakuntzan.

Ekoizpen-sareak prestakuntza-prozesuan parte hartuz gero (prozesu hori LH Dualaren eredu berrian definituta dago), lan-munduak eskatzen dituen gaitasunak identifikatzen ahalko dira, bai produktibitatea areagotzeko eta bai ekoizpen-sektoreek enplegua sortu eta mantentzeko.

Hezkuntza Departamentuak, prestakuntza-zentroek beraiek kudeatutako galdetegien bitartez, estatistika-informazioa eguneratzen du eta, horri esker, ikasketak amaitu dituzten ikasleen laneratze-mailaren berri izan dezakegu ikasketak amaitu eta lehen hilabeteetan.

Iruñean, 2025eko urriaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00351. Galdera, Nafarroako Turismoaren Agenda Ofizialean Corellako Ardo Azoka ez agertzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Turismoaren Agenda Ofizialean Corellako Ardo Azoka ez agertzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak Corellako ardoaren azokari buruz eginiko informazio-eskaerarekin lotuta (11-25/PES-00351), honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilaria naizen aldetik:

Nafarroako Turismo Agenda Ofizialean (<https://www.visitnavarra.es/eu/agenda>) ematen da entitate babesleek eskatzen dizkiguten ekitaldien berri. Kasu honetan, ez zen eskaerarik jaso.

Nafarroako Gobernuaren turismo-webguneko Agenda edo Planak ataletan agertzeko prozedura, bai turismo-enpresentzat eta bai entitate publikoentzat, Nafarroako Gobernuaren turismo-webgunean kontsultatzen ahal da (urteak dira hori egiten ahal dela): <https://turismoprofesional.navarra.es/eu/sectorearendako-zerbitzuak/sustapena-laguntzeko-tresnak/nola-agertu-turismoko-webgune-ofizialean>.

Logoak iragarki-karteletan agertzeari dagokionez, ezin dugu entitate antolatzaileen izenean erantzun. Nolanahi ere, "Nafarroako Turismoa" logotipoaren eta markaren erabilera dirulaguntza, babesletza edo bestelako lankidetzeta-formula bati lotutako betebeharrak betetzera mugatzen da.

Turismo-enpresek eta ekitaldiak antolatzen dituzten entitateek horiek erabiltzeko baldintzak Nafarroako Gobernuaren turismo-webgunean kontsultatzen ahal dira (urteak dira hori egiten ahal dela): <https://turismoprofesional.navarra.es/eu/servicios-sector/herramientas-y-medios-multimedia/logotipo>.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00352. Galdera, Hiri Zirkularraren proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Hiri Zirkularraren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erantzuna

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak PES-00352 galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuko lehendakariak horri buruz jakinarazten diona:

1. puntuari dagokionez, jo bedi 11-25/PES-00216 idatzizko galdeari eta 11-25/PES-00334 idatzizko galderari jada erantzundakora.

2. puntuari dagokionez, lehendakariaren idatzizko oharra dokumentu pribatua dira eta, beraz, ez dira sartzen Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan foru-parlamentarietik informazioa eskuratzeko duten eskubideei buruz jasotako kasuetan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak Hiri Zirkularra proiektuari buruzko idatzizko galdera egin zuen (11-25/PES-00352). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

3. Nor ziren proiektu honen sustatzaileak?

Exekuzio-proiektu bat idaztera iritsi ez bazen ere, sustatzailea Nafarroako Gobernua izan zen, Nasuvinso sozietate publikoaren bitartez, geroago elkarlan publiko-pribatuko formulak egituratzeko asmoz, aurretik lizitazio publikoa eginda.

4. Nondik heldu da proiektuaren 157,6 milioi euroko aurrekontua? Zein entitatek egin behar zuten proiekturako ekarpena? Zenbat jarri behar zuen bakoitzak? Ba al dago guztizko zenbateko hori azaltzen duen aurrekontu-banakatzeri buruzko dokumenturik?

Nafarroako Gobernuak proiektu hori sartu zuen proposamenen zerrendan Next Generation-EU Europako programaren finantzaketa eskuratzeko. Proposamen horiek Nafarroa Green dokumentuan bilduta daude. Hiru urtean 157,6 milioi euroko inbertsioko gutxi gorabeherako kalkulua aurreratu da, SEMen bidez 40 milioi euro lortu ahal izango direlakoan, hargatik eragotzi gabe kalkulu hori geroago modu xehatuagoan egin ahal izatea, Europako edo Estatuko finantzaketan arbera, horiek lortuz gero.

5. Zein zen proiektu horren epea eta non kokatu behar zen?

Nafarroako Gobernua ez zen espedienterik izapidetzera iritsi, ez eta epedun exekuzio-proiekturik idaztera ere; nolahi ere, Nasuvinsak kokapen posiblei buruzko alternatiben azterlan bat aurreratu zuen, eta horretatik ondorioztatzen zen NUPen UGPSa zela kokapen egokiena.

6. Zenbat bilera egin zuten proiektuaren sustatzaileek orduko Etxebizitzako kontseilari José María Aierdirekin? Nortzuk egon ziren bilera horietako bakoitzean?

Esan den bezala, proiektuaren sustatzailea Nafarroako Gobernua zen, gero elkarlan publiko-pribaturako formulak egituratzea aurreikusten bazen ere. Horri dagokionez, 11-25/PEI-00673 informazio-eskaeraren erantzunean adierazi bezala, kontseilari honek topaketaren bat egin zuen antzeko beste proiektu batzuen sustatzaileekin (ez dago horien erregistrorik) eta horiek helarazi zizkioten haien ezagutza teknikoak eta beste udalerrri batzuetan izandako esperientziak hiri zirkularraren kontzeptu orokorra hartzen duten hainbat bektoreri dagokienez (bizitegi-garapena eta azpiegiturak, energiaren kudeaketa integrala, uraren eta hondakinen zikloa, mugikortasuna eta garraioa, eta digitalizazioa).

Zergatik sartu zuen Nafarroako Gobernuak Hiri Zirkularra proiektua "Nafarroa Green" Trantsizio Ekologikorako estrategian?

Nafarroako Gobernuak proiektu hori sartu zuen proposamenen zerrendan Next Generation-EU Europako programaren finantzaketa eskuratzeko. Proposamen horiek Nafarroa Green dokumentuan bilduta daude, Europako Itun Berdearekin (European Green Deal) lerrokatuta egoten ahal diren proiektuetan eta, beraz, SEMen bidez finantzaketa lortzen ahal dute.

Ba al dago proiektu horri buruzko dokumenturik, haren azalpena "Nafarroa Green" Trantsizio Ekologikorako Estrategiaren dokumentuan sartu aurretik? Zertan oinarrituta egin da azalpena?

Nasuvinsak ekonomia zirkularraren eta hirigintza jasangarriaren adierazleentz pean hiri-kokaguneak ezartzearen egokitasunari buruzko aurretiko analisia egin zuen, eta horretan oinarrituta sartu zen aipatu zerrendan. Geroago, proiektuak Europako finantzaketa jasotzen ahal zuelakoan, sozietate publiko horrek hauek aurreratu zituen: aurrekontu posiblei buruzko aurretiko azterlanak, ESEPE posible bati buruzko analisi juridikoa edo elkarlan publiko-pribaturako formulak edo kokaleku posiblei buruzko alternatiben azterketak.

9. Zergatik ez zen azkenean proiektua egin?

Ez zelako lortu finantzaketarik Next Generation-EU programaren bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00353. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIaren hezkuntza- eskaintza handitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Cintruénigoko La Paz BHIaren hezkuntza- eskaintza handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25- PES 00353 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Cintruénigoko "La Paz" DBHko institutuko hezkuntza-eskaintza handitzeko epeak ikastetxea handitzeko aukera ematen duten lursailak edukitzeko aukeraren mende daude.

Hain zuzen ere, joan den otsailean, kontseilariak publikoki adierazi zion herriko alkateari ikastetxea zabaltzeko nahi zuela Lanbide Heziketako zikloak ezartzeko, eta, horretarako, udalari laguntza eskatu zion institutuaren ondoko lursailak erosteko.

Beraz, publikoa da Hezkuntza Departamentuak herriko ikastetxeak zabaltzeko duen konpromisoa. Hala ere, sei hilabete igaro dira ikastetxera bisita egin zenetik, eta udalak ez dio departamentu honi inolako aurrerapenik jakinarazi lursail posibleen lagapenari dagokionez. Udalari gogorarazten zaio lagapen hori kargarik gabe egin behar dela, departamentu honek zabaltze-proiektuaren lizitazio-lanak lehenbailehen hasi ahal izan ditzan.

Une honetan, Lanbide Heziketako eskaintza zehatza ez dago definituta, baina aurreikuspena da oinarrizko prestakuntza-zikloren bat ezartzea, ikastetxean jada dagoen oinarrizko irakaskuntzako eskaintzaren osagarri.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00354. Galdera, zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonei laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak zeliakia edo glutenarekiko intolerantzia duten pertsonen laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11- 25/PES-00354), honako honi buruz: gaixotasun zeliakoa duten edo glutenari intolerantzia dioten pertsonen laguntzeko neurri ekonomiko espezifikoak abian jartzea aurreikusi ote duen Nafarroako Gobernuak, kontuan izanik halako pertsonen elikadurak dakarren gailuzko eta glutenik gabeko dieta izateko behar medikoa. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroako Zeliakoen Elkartea toki-entitateentzako, fundazioentzako eta irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntzetara aurkezten da, osasun programetarako, “Paziente eta familientzako dirulaguntzak” lerroan.

2020an bi programa aurkeztu zituzten:

– “Gaixo zeliakoentzako elikagai egokien zerrenda” programa.

– “Laguntza psikologikoa gaixo zeliakoarentzat” programak ez zituen bete onartua izateko gutxieneko kalitate baldintzak.

Urte horretan 6500 euro eskatu ziren onartutako programarako; alabaina, 1638 euro baino ez ziren jaso, puntu gutxi lortu zituztelako.

2021ean, bi programa berri aurkeztu zituzten, geroago dirulaguntza jaso zutenak:

– “Nafarroan bizi diren zeliakoei eta haien senideei laguntzea, aholkua ematea eta horien bizitza normalizatzea” programa, 13.806 euroko dirulaguntza jaso zuena.

– “Jatetxeei eta janaria zerbitzatzen duten establezimenduei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea” programa, 3074 euroko dirulaguntza jaso zuena (puntuazio txikia izateagatik).

Urte horretan 22.134 euro eskatu ziren.

2022an, bi programa aurkeztu ziren, eta horien kalitate lerroa aurreko urtekoaren antzekoa izan zen:

– “Nafarroan bizi diren zeliakoei eta haien senideei laguntzea, aholkua ematea eta horien bizitza normalizatzea” programa, 10.398 euroko dirulaguntza jaso zuena.

– “Jatetxeei eta janaria zerbitzatzen duten establezimenduei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea” programa, 1971 euroko dirulaguntza jaso zuena.

Urte horretan eskatutako zenbatekoa 25.510 eurokoa izan zen.

2023an, programa bat aurkeztu zuten:

– “Arreta paziente zeliakoei eta horien familiei” programa, 14.200 euro jaso zituena.

Urte horretan eskatutako zenbatekoa 27.150 eurokoa izan zen.

2024an, programa bera aurkeztu zen, eta mantendu egin ziren jarduerak, egoera horretako pertsonen beharrak asetzeko garatutako ekintzei jarraipena ematekoak, hain zuzen.

– “Arreta paziente zeliakoei eta horien familiei” programa, 10.559,33 euro jaso zituena.

Urte horretan eskatutako zenbatekoa 25.500 eurokoa izan zen.

2025ean mantendu egin da aurreko bi urteetan aurkeztutako programa.

– “Arreta paziente zeliakoei eta horien familiei” programa, 10.550 euro jaso zituena.

Urte horretan eskatutako zenbatekoa 21.600 eurokoa izan zen.

Nafarroako 2017ko aurrekontu orokorretan, “Zeliakoen elikadura gastuetarako dirulaguntzak” izeneko laguntzarako deialdia egin zen, 30.000 euroko laguntzarekin. Lerro hori Nafarroako aurrekontu orokorretan sartu zen parlamentuko zuzenketaren bidez, eta Osasun Departamentuari enkarगतु zitzaion horren kudeaketa. 1506 dirulaguntza eman ziren, eta batez besteko laguntza 19.92 eurokoa izan zen. Horrek agerian utzi zuen emandako laguntza ez zela eraginkorra, eta, beraz, desagertu egin zen.

Egindako ebaluazioan, ondorioztatu zen ez dela aplikagarria efikazia/efizientzia irizpidea, eta laguntzak sortzen duen onura baino gastu handiagoa eragiten duten administrazio baliabideak bideratzera behartzen duela, elikagaien fakturen berrikuspenean oinarritutako kudeaketa korapilatsua izateaz gain: deialdi honen dinamikak denbora eta giza baliabide ugari inbertitzea eskatzen zuenez gero, zerbitzuaren beste ataza batzuk hein handi batean atzeratzen dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00355. Galdera, Laneratzeko Plan Estrategikoari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Laneratzeko Plan Estrategikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-25/PES-00355 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

2026-2029ko Gizarteratze Plan Estrategikorako ekarpenak egiteko epea amaituta, ekarpenen txostena amaitzen ari da, eta ekarpen horiek testuan txertatzen. Gainera, aldi berean, administrazio-izapideak aurreratzen ari dira, Nafarroako Gobernuak onar ditzan.

Izapide horiek amaitutakoan, Parlamentura bidaliko dira, jakinaren gainean egon dadin.

Hala ere, prozesua esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://participa.navarra.es/processes/plan-inclusion-social-navarra?locale=eu>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-25/PES-00356. Galdera, Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 10eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak Ultzama ibaian dozenaka amuarrain hilik agertu izanaren arrazoiei eta neurriei buruzko idatzizko galdera egin du (11-25/PES-00356). Hona hemen Landa

Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea ingurura joan zen 2025eko uztailaren 20an eta, Foruzaingoak ikerketaz arduratuko zela berretsi bazuen ere, Ingurumen Departamentuko langileek, geroago, ibilgua bisitatu zuten halakorik berriro gertatu ez zela egiaztatzeko.

Foruzaingoaren txostenean ez da harremanik zehazten hildako arrainen eta Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren eskumenekoak diren instalazioetatik etorritako isuri jakin baten artean.

Ura kutsatuta egotearen zantzurik ikusi ezenez, ez zen komunikazio espezifikorik egin.

Bestalde, nabarmendu behar da orain dela urte batzuetatik hona inguruan lanean ari garela Zuzendaritza Nagusiaren beste zerbitzu batzuekin,

NILSarekin, Ultzamako Udalarekin eta inguruko kolektiboekin, ibilgua kaltetzen ahal duen inguruko abeltzaintza-jarduera kontrolatzeko. Horretarako, Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak ikuskapen-protokoloak egin ditu udalaren eskumenekoak diren jardueretarako eta, gainera, uren kalitatean eragiten ahal duten 29 ingurumenbaimen bateratuen jarraipen zorrotzagoa egin da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00357. Galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari emandako dirulaguntzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emilio Jiménez Román jaunak Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari emandako dirulaguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Talde Mistoko foru parlamentaria eta VOX taldeko kidea den Emilio Jiménez Román jaunak PES-357 galdera egin zuen. Hona Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

- Denbora-tarte horretan Euskal Udalekuak-ek ez du Nafarroako Gobernuaren zuzeneko finantzaketarik jaso.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde